

05/03 IRIZPENA

Gaizka Gabantxo jn.
Lehendakariordea

Javier del Campo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Ochoa jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2005eko urtarrilaren 25eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duen agindu proiektuari buruz.*

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duen agindu proiektua, kasuan kasuko aginduzko txostena eman dezan.

Era berean, Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak emandako txostena eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren memoria bidali dira.

I.- AURREKARIAK

Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren 43. artikuluan ezarri bezala, Hezkuntza administrazioek arreta berezia eskainiko die aparteko gaitasun intelektualak dauzkaten ikasleei, administraziooi baitagokie ikasleok identifikatu, baloratu eta behar bezala eskolatzeko neurri egokiak hartzea.

Uztailaren 18ko 942/2003 Errege Dekretuan, hezkuntza sistemaren maila eta etapen iraupena malgutzeko baldintzak eta prozedura arautzen dira, aparteko gaitasun intelektualak dauzkaten ikasleentzat, baldin eta erregimen orokorreko eta bereziko eskola irakaskuntza ikasten ari badira; kasu horietan, Hezkuntza administrazioek behar beste xedapen eman ahal izango dute prozedura hori garatu eta betearazteko.

EAEEn, ondokoak ditugu: 118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena; dekretu hori garatzen duena, hau da, Erabakia, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena; eta 1996ko apirilaren 24ko Agindua, aparteko gaitasun intelektualak dituztela-eta heziketa-premia bereziak dituzten ikasle horien eskolatzeko aldiaren iraupena -salbuespen modura- nola malgutu (baldintzak eta jardunbidea) arautzen duena. Agindu hori oinarritzeko araua da.

II.- EDUKIA:

Proiektuaren edukia ondokoa da: zazpi artikulua, azken xedapen bi eta xedapen indargabetzaile bat.

Lehenengo artikuluan aplikazio eremua zehazten da, hots, erregimen orokorreko eta bereziko irakaskuntza ematen duten EAEko ikastetxeak.

Bigarren artikuluan dioenez, agindu honen helburua ondokoa da: ikasle mota horren identifikazioa eta ebaluazio psikopedagogikoa egiteko prozedurak ezartzea; eman beharreko erantzuna bideratzea; eta ikasle horien eskolatzeko aldiaren iraupenaren malgutasuna eskatzeko prozedura arautzea.

Hirugarren artikuluan ezarri bezala, lurralde bakoitzeko hezkuntza premia berezien aholkulariek identifikazio prozesua gauzatzeko dute, ikastetxeak halaxe eskatuta edo ofizioz. Halaber, bertan emandako definizioaren arabera, Ebaluazio Psikopedagogikoa ikasleei buruz informazioa jaso, aztertu eta baloratzea da, eta jarduketara plana lantzeko oinarria da.

Laugarren artikuluan arautzen da hezkuntzaren aldetik zein erantzun eman behar zaion ikastetxe arruntetan eskolatuko den ikasle mota horri, eta, nolana ere, ikasleak bere ahalmenak bete-betean, neurritz eta eskola inguru normalizatu batean garatzeko dituela bermatu beharko da. Ikasle horiei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna bi bidetatik etor daiteke: curriculumak zabaltzea; edo derrigorrezko eskolatzeko aldia malgutzeko, hau da, curriculumak banan-banan egokitzea.

Bosgarren artikuluan, curriculum-neurriak ezartzen dira: batetik, curriculumak egokitu eta zabaltzea –Lehen eta Bigarren Hezkuntza zehaztu bezala-; eta bestetik, derrigorrezko eskolatzeko aldiaren lehenago hasteko aukera ematea edo aldi hori laburtzea. Era berean, batetik, beste era bateko estrategia metodologikoak aipatzen dira, eta bestetik, curriculum-egokitzapenak jasango dituzten alorren ebaluazioa.

Seigarren artikuluan curriculum-neurriak emateko prozedura zehazten da: curriculumak egokitu eta zabaltzeko baimena emateko, banan-banan curriculum-egokitzapen esanguratsuetarako aginduan zehazten den bide bera erabili beharko da (1998ko uztailaren

24ko agindua). Era berean, Derrigorrezko Hezkuntzan, eskolatzeko-aldia aurreratu edo laburtzeko prozedura eta epeak ezartzen dira.

Zazpigarren artikuluan, eskolatzeko-aldia malgutzeko aparteko neurriak eta curriculum-egokitzapenak erregistratzea arautzen da.

Xedapen indargabetzaileak 1998ko uztailaren 24ko ebazpena indargabetzen du.

Azken xedapenak zehazten du noiz hasiko den aginduaren indarraldia.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren memoriaren arabera, arau hau beharrezkoa da, oraingo arautegia LOCEri eta uztailaren 18ko 943/2003 Errege Dekretuari egokitu behar zaiolako eta urteotako esperientzia kontuan izaki, aldaketa batzuk egin behar direlako, prozeduren funtzionalitatea egokitzeko, bereziki ikasle mota horren identifikazio eta jarraipenaren eremuan.

LOCEn hirugarren sekzioan, aparteko gaitasun intelektualak dauzkaten ikasleen ezaugarriak aipatzen dira; laugarrenean, aitzitik, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleenak. 943/2003 Errege Dekretuan, berriz, hezkuntza sistemaren maila eta etapen iraupena malgutzeko baldintzak eta prozedura arautzen dira, aparteko gaitasun intelektualak dauzkaten ikasleentzat, baldin eta erregimen orokorreko eta bereziko irakaskuntza ikasten ari badira. Errege dekretu horretan, maila eta etapen iraupena malgutzeko baldintzak eta prozedura bakarrik arautzen dira, eta honelaxe dio: *“adinaren arabera egokituko litzaiokeena baino goragoko maila batera sartzea. Neurri hori hiru aldiz gehienez hartu ahal izango da oinarrizko irakaskuntzan eta behin bakarrik, ordea, derrigorrezko irakaskuntzen ondokoetan”*. Errege dekretuan ere, erregimen bereziko mailen iraupena malgutzeko irizpideak definitzen dira.

1998ko uztailaren 24ko Ebazpenaren xedea da aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna arautzea, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna arautzeko 118/1998 Dekretua –LOGSEren garapena– garatzeko eman zen hain zuzen ere. Izan ere, ebazpen huraxe da indargabetu nahi dena. Ebazpen horri dagokionez, agindu proposamen honek dakartzan aldaketa nagusiak ondokoei buruzkoak dira: identifikazio prozesua, aparteko gaitasunetan espezializatutako taldea, hautemate plana eta jarduketako planak.

Kontuan izaki agindu proposamen hau jada ez dela emango aparteko gaitasunei buruzko printzipio orokorrak arautzeko 118/1998 Dekretua -LOCE eta 943/2003 Errege Dekretuaren menpekoa- garatzeko, eta aldaketa garrantzitsu batzuk aztertzen dituela, jakin beharko litzateke proposamenaren arau-lerruna egokia den ala ez.

Halaber, ez dakigu arau hau une honetan ematea egokia den ala ez, laster aterako delako hezkuntza lege berri bat eta lege horrek berritasunak ekar ditzakeelako.

Jarraian, artikuluei buruzko zenbait ohar zerrendatzen dira:

➤ **Hirugarren artikulua:**

- **1. atala:** *"lurralde bakoitzeko hezkuntza premia berezien aholkulariek identifikazio prozesua gauzatuko dute, eta aholkulariok Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzako Goi Mailako Gaitasunetan espezializatutako taldeari atxikitakoak dira."*

Ez genekien Goi Mailako Gaitasunetan espezializatutako talderik zegoenik, eta gure ustez, esparru hori arautuko denez, aukera aprobetxatu beharko litzateke, talde horren funtzioak, osaketa, eta abar definitzeko. Hortaz, talde horren funtzioen artean, hautemate programa orokorrak –bigarren atalean aipatuak- diseinatzea egongo litzateke, hots, helburuak eta maiztasuna aipatu beharko lirateke behintzat.

- **Ebaluaketa psikopedagogikoa.** Atal hau laugarren artikulua berria edo hirugarren artikulua 3. atala izan beharko litzateke. Dena den, testuaren artikuluen zenbakiak aldatu beharko lirateke 5. artikulura arte.

Atal honetan Jarduketa Plana aipatzen da, eta aurreko ebazpenean agertzen ez zen kontzeptu berri bat da. Esan bezala, Jarduketa Planaren gidalerroak txosten psikopedagogikoan azaldutakoaren araberrakoz izango dira: *"eta beharrezko curriculum eta antolakuntza egokitzapenak proposatuko dira; era berean, komenigarria izango litzateke curriculumak egokitu eta zabaltzea edo eskolatze-aldia malgutzea, eta bi kasuetan, curriculumak banan-banan egokitzea."*

Beste alde batetik, bigarren artikulua 2b atalean –eskolatze aldia lehenago hasteko baimenaz- ezarri bezala, hona hemen Jarduketa Planaren proposamenari nahitaez erantsi beharrekoak:

- 1.- zein helburu, eduki eta ebaluaketa-irizpide proposatu nahi diren;
- 2.- metodologiaren aldetik egokienak iruditzen zaizkigun aukerak;
- 3.- eta ikastetxeak antolakuntza dela-eta zein neurri hartzeko asmoa duen: taldeketetarako, baliabideetarako eta tokia eta denbora banatzeko.

Hau da, Jarduketa Plana curriculum egokitzapenaz haratago doa, izan ere, uztailaren 24ko Aginduan jasotako definizioaren arabera, 1. atalari bakarrik zegokion, beraz, 2 eta 3. atalak berriak dira. Hori guztia dela eta, gure ustez, artikulua horretan azaldu beharko litzateke nori dagokion Jarduketa Plana lantzea eta zeintzuk diren plan hori osatzen duten elementuak.

➤ **Bosgarren artikulua:**

- Artikulu horretan azaldu bezala, aplikazio eremua Lehen Hezkuntza eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza da, eta agindua, berriz, erregimen orokorreko eta

erregimen bereziko irakaskuntza guztiei aplikatuko zaie, beraz, irakaskuntza horiei buruzko aipamenen bat egin beharko litzateke.

- Erdarazko "*adecuaciones curriculares*" izendapena aurreko ebazpenaren "adaptaciones" izenekoari omen dagokio, beraz, nahasgarria suerta daiteke eta gure ustez, ez da beharrezkoa izendapena aldatzea.

➤ ***Seigarren artikulua***

- **1. atala:** curriculumuma egokitzeko baimena emateko prozedurari dagokionez, ikus 1998ko uztailaren 24ko Aginduan xedatutakoa. Hala ere, agindu horren 11. artikuluan xedatutakoa ez dator bat arautegi berri honetan ezarritakoarekin. Kontuan harturik COPak eta talde multiprofesionala –arauan aipatua– desagertu direla, agindu proposamenaren 3. artikuluan alderdi berriak arautzen dira, adibidez: ikastetxeak berak egin behar du Jarduketa Plana, goi mailako gaitasunen taldeak landutako ebaluaketa psikopedagogikoaren gidalerroen arabera, baina gure ustez, xedapen hori ez dator bat 1998ko arauan ezarritakoarekin.

Hori dela eta, gure aburuz, beharrezkoa da arau horretan baimentze prozesua argi eta garbi azaltzea, inguruabar berriei egokituta.

Beste alde batetik, hirugarren artikuluan xedatutakoaren arabera, Jarduketa Plana erantzuna gorabehera landuko da, hau da, curriculumaren zabaltze-egokitzapena ala eskolatzeko-aldia malgutu behar den kontuan izan gabe, atal honetan ez baita inolako aipamenik egiten horren gainean.

- **2. atala:** eskolatzeko-aldia aurreratzea edo laburtzea derrigorrezko hezkuntzan. Gurez ustez, ordea, 1. artikuluan xedatutakoa aintzat harturik, erregimen orokorreko eta erregimen bereziko irakaskuntza agertu beharko lirateke proposamenan.
- Atal honetako hirugarren paragrafoan, indargabetu nahi den ebazpena hitzez hitz azaltzen da, b ataleko aipamen txiki bat izan ezik: "...curriculumuma egokitzeko proposamen zehatza, ikastetxeko zuzendariaren izenpearekin. Hona hemen *Jarduketa Planaren proposamen horri* nahitaez erantsi beharrekoak..."; beraz, antza denez, curriculum egokitzapena eta Jarduketa Plana parekatu nahi dira, eta ideia hori ez dator bat gorago esandakoarekin. Beste alde batetik, baimena emateko prozesua 1998ko arauan zegoen bezala kopiatu denez, arauak berak ezarritako aldarazpenak ahaztu egin dira, beraz, komenigarria izango litzateke aipamena berrikustea, koherentzia handiagoa lortze aldera.
- Beste alde batetik, akats batzuk antzeman dira: c) atalean, talde multiprofesionalari buruzko aipamenaren ordez, Goi Mailako Gaitasunetan espezializatutako taldeari atxikitako hezkuntza premia berezien aholkularien taldea agertu behar da. Era berean, hirugarren lerroan, "Teknikoa" hitza kendu behar da, Hezkuntza Ikuskaritza aipatzen denean.

Amaitzeko, gure ustez, kasuren batean agiri osagarriren bat eskatu behar bada ere, baimena emateko prozedura ez da zertan desberdina izan bi kasuetan. Nolanahi ere,

prozedura desberdin bi behar direla uste bada, gure aburuz, esplizituki azaldu beharko lirateke arau honetan.

➤ **Zazpigarren artikulua**

- Artikulu osoan ez dago inolako aipamenik derrigorrezkoak ez diren etapei – Batxilergoa edo erregimen bereziko irakaskuntzak- buruz, baina lehenengo artikuluan jaso bezala, etapa horiei ere aplikatu egingo zaie arau hau.
 - **1.c) atala, bigarren paragrafoa:** paragrafoaren idazkera aldatu beharko litzateke, ulertu baitaiteke DBHren ebaluaketa zikloka egingo dela, nahiz eta egun ikasturteka egin.
 - **3. atala:** curriculum-egokitzapenak erregistratzea: erdarazko "*adaptaciones*" izendapenaren ordeztu, "*adecuaciones curriculares*" agertu beharko litzateke, aginduaren testuarekin bat etortzeko. Hala eta guztiz ere, eta gorago esan bezala, gure ustez, ez da beharrezkoa izendapena aldatzea, eta argiagoa izango litzateke beti izendazio berbera erabiltzea.
- **Xedapen indargabetzaileari** dagokionez: uztailaren 24ko Ebazpenaz gain, ekainaren 23ko 118/98 Dekretuaren 22. artikulua indargabetuta geratuko litzateke eta bigarren artikuluan definitutako hezkuntza-premia bereziei buruzko kontzeptua aldatuko litzateke. Dekretu bat aldarazteko, nahiz eta zatikako aldarazpena izan, gure iritziz, beste dekretu bat eman behar da.

Ondorioz,

1. Batzorde Iraunkorraren irudikoz, asmoa bada aparteko gaitasunak dituzten ikasleei erantzuna emateko marko berria sortzea -LOCE eta 943/2003 Errege Dekretua garatzeko asmotan-, hobe litzateke kontzepzio berria arautzeko dekretua lantzea.

2. Aurkeztutako agindu proiektuaren terminologia berrikusi behar da, eta funtzioak eta eskumenak argi eta garbi zehaztu.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2005eko urtarrilaren 25ean

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIORDEA,

Iz. Gaizka Gabantxo

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.